

JUSTIZIA TXISTULARI

Gabriel Aresti

Bi zatitan konpondutako antzerkia

1965

Oiartzun'go teatrogille guztiei

Oharra: Komedia honetako azken redakzio-lana (aditza, ortografia eta hitz askoren propietasuna: nire euskera baldarraren azken orraztutze herrikorra), Oiartzungo makin-idazlearen eskuetan geratu zen. Har beza berak bere responsabilitadea, nik nirea hartzen dudan bezala.

LEHEN-ZATIA

(Igande goiz bateko lehen orduak dira. Jauregia eta eliza hitxirik daude. Egunsentiko eguzkiaren dizdizerak argitzen du lekua. Gabon-Eder bakarrik.)

EDER: *(Bost koplak hauek kantatzen ditu, doñu triste, bigun eta zahar batean.)*

I

Nola da nere bihotza
egun honetan hain hotza.
Bihotz honeri mundu guztiak
ez tristatzeko diotsa.

II

Jaun konde eta apaiza
nere atzetik dabilta.
Eskurik esku artu nai naute
ardi gaixoaren gisa.

III

Pobreak gera esklabo
libertadea akabo.
Nola idiak uztarripean
euskaldun herria dago.

IV

Airea zaida faltatu
deabrua dut aipatu.
Il arteraño egin behar det
Txordon Pilota maitatu.

V

Zeruan ez da izarrik
maitea bezain ederrik.
GABON-EDER'ek izan behar du
maitearentzat bakarrik.

(Ixildu egiten da. Ager-tokian beraren aita agertzen da. Perrando Txistu, alaba kantatzetik gelditu baino lehen sartu da. Eta azken koplak hori bukatu ondoren bertan, txistua jotzen asten da, beste melodia trixte eta bihotz-erdibikor batean. Gabon-Eder'ek txistuaren soñura dantzatzeko du: Ikustaleak ez du jakin behar dantzarisaren pausoa nolakoa dan, aingeru inozente batena edo infernu-peko lilluragarri batena.

Apur-apurka, eta txistuaren doña trixtea amaitzen den bitartean, egunaren argia zabaldu da guztiz. Agirian dago Perrando Txistu gizon baserriar bat besterik ez dela, bere maneretan eta begiradetan oso torpe eta desabilla. GabonEder bazter batean deskantsatzen dago, eta ez da enkantuan eta dantzan iraun duan artean bezelako lamia enkantagarria, herriko alaba deseagarri bat baizik.)

TXISTU: Zertara etorri zera herriko plazara horren goiz, alaba? Etxetik ateratzen etzaitut sentitu, eta ohean ziñela uste nuen.

EDER: Aita, sekretu bat aitortu behar dizut.

TXISTU: Bai, alaba?

EDER: Entzun zaidazu, aita. Zure etxean ez nauzu beti edukiko, debalde mantentzen. Zuk haur bat banitz bezela begiratzen nauzu, baiña ez naiz orren haurra. Andretu egin naiz, aita.

TXISTU: Aita bati asko kostatzen zaio holakorik ezagutzea, baiña zure gerri liraña ikustean, ez det batere dudarik.

EDER: Famili bat eduki nahi dut, nere. Haur asko ekarri nahi ditut mundu honetara. Eta gizon bat nahi dut famili horren buru izateko.

TXISTU: Bai, ongi dago. Goiz edo berandu ordu hori etorriko zela banakien. Baiña ez zaitez kezkatu. Zuretzat oso dote on bat tajutu det ama il ondoren bizi izandu geran urte hauetan. Perratzalle batek gutxi irabazten du anketik ankeran lanian, eta horregatik ikasi nuan txistua jotzen. Jai eta pesta guzietara deitu naute ballerako herri guztietatik, eta probintzia guztian zabaldu zen nere trebetasunaren sona eta fama ona. Perratokitik ateratakoarekin eguneroko ogia jan degu, eta txistuaren soñuetatik ateratako urte eta zillar guztiak ongi gorderik daduzkat etxeko kutxa fuertea batean, lapur guzietatik hurruti, zu ezkonduko ziñan egunaren zai. Dote eder horrekin oso gauza erreza izango degu behar bezelako senar egoki bat aurkitzea. Ez zaitez orregatik arduratu, alaba. Aitak asko maite zaitu eta arkituko dizu mutill egoki bat.

EDER: Baiñan aita, mintza eta mintza etzera gelditzen eta itzegiten ez didazu uzten. Senar bat aurkitzeko ez dut zure beharrik. Nik bakarrik topa dezaket nere gustoko mutill on bat.

TXISTU: Billa zazu, bada, eta etzazu bazterrik nastu.

EDER: Arkitu dut, aita.

TXISTU: Arkitu dezula?

EDER: Bai, aita; hau zen nere sekretua.

TXISTU: Ederra atera zait ollotegitik ollanda. Eta honetarako bizi izan naiz ni hainbeste urtetan ardo goxotik eta amodio gazitik aparte? Nire txanponak behar ziren egunean baliorik ez izateko?

EDER: Balioko dute, aita.

TXISTU: Eta nor da, nere alaba lapurtu nahi didan animarik gabeko gizon hori?

EDER: Benetan pensatzen al dezu esaten dezuna, aita, edo ni aserretzeagatik hitzegiten dezu modu eskas horretan? Hainbeste oztopo kontrario dauzkagunean, jaun kondearen abariziaren kontra eta erretore jaunaren lizunkeriarren kontra burrukatzen degunean, nere aita bera, orain artean hainbeste maite izan nauzun nere aita bera, zu ere gure kontra aterako al zera?

TXISTU: *(Erdi-parrezka.)* Alaba...

EDER: Ala gertatzen baldin bada, nere etxea madarikatuko dut, gure izena aldatuko dut, zure diruak despreziatuko ditut, eta oraiñ arteraño nore bizitzatik gauza bat

bakarrik gordeko det animaren barrenean, nere ama zenaren oroitzapen maitagarria. Hori bakarrik gordeko dut, eta gaiñera, nere bihotzean samintasun mingots bat, min garratz bat nere bularraren barrenean, gehien behar izan detan orduan nere laguntzarik bortitzenak utsegin didalako. Baiña ondo entzun eidazu, aita, zabal itzazu ahalik eta zabalen zure belarriak, mundu honetan ez bainau ezerk, ezerk, entzuten dezu?, ezerk ez bainau nere Txordon-Pilota'ren amodiotik apartatuko.

TXISTU: *(Parra egiten du.)* Ja, ja, jai, jai!

EDER: Eta gaiñera, neri parra egiten didazu?

TXISTU: *(Lehertu arte egiten du parra.)*

EDER: Ai, ni errukarrial Ai, ni trixtea!

(Elizaruntz dijoa, eta bertan makurtzen du burua negar egiteko.)

TXISTU: *(Ez du parrerik egiten. Bere arpegiak aldaketa haundi bat sufritu du, serio, serio alabarengana dijoa.)* Alaba...

EDER: Zer nahi dezu orain?

TXISTU: Barka zaidazu. Badakizu nolako humore biurria dadukan zure aitak. Begi hoietatik negarra irten arazi detalako damu naiz; Baiña zin egiten dizut, etzen hori nere asmoa. *(Eder'ek bere begitartea altxatzen du.)* Ez, alaba, etzan hori nere asmoa. Badakizu gauza bat, nere sekretu bat? Nik ere sekretu bat badadukat... Nere sekretua jakin nahi dezu, alabatxo?

EDER: *(Oraindik paretaren kontra makurturik, buruko illeak apartatzen ditu arpegitik, eta negarraren artean ortzak agertzen ditu, irribarrez.)* Zuk sekretu bat, aita?

TXISTU: Bai.

EDER: Eta zer da? Zein da zure sekretua?

TXISTU: Gaizki portatu zera. Zure aita ez dezula ezagutzen aditzera eman dezu. Eta hori ez nizun barkatuko...

EDER: Ez zenidan barkatuko...

TXISTU: Ez, ez nizun barkatuko, nere txori polita, nere krabeliñ usai gozokoa, ez nizun barkatuko hainbeste maite ez bazinduket.

EDER: Mesedez, aita, zure sekretua esaidazu.

TXISTU: Gaizki portatu zera?

EDER: Gaizki portatu naiz, baiña mesedez, aita, zure sekretua aitor zaidazu, bestela jakin-nahiak jango nau.

TXISTU: Merezia zenuke. Nere sekretua...

(Gelditzen da. Eztul egiten du.)

EDER: Esan, aita!

TXISTU: Baiña ez dakit nere sekretua jakitea merezi dezun. Zure aitaz etzera fio izan. Oso gaiztoa izan zera, eta...

EDER: Gaiztoa zu zera, berehala esaten ez badidazu, berriz haserretuko naiz, eta haserreturik, begiak itxutu egingo zaizkit, eta ez jakingo zer egin, eta aserre golpe batean burua apurtuko dizut...

TXISTU: *(Parreka.)* Zerekin apurtuko didazu burua?

EDER: *(Parrez au ere.)* Maillu batekin eta biola batekin.

(Biok parra egiten dute.)

TXISTU: *(Parreka.)* Zure maitasuna ezagutzen nuen zuk esan baino lehen, alaba.

EDER: Ba-zenekiela guztia?

TXISTU: Bai, maite. Txordon'ek zu ezagutu baino lehen kortejatzeko baimena eskatu zidan. Oso pozik eman nion, oso nere gustokoa baita mutilla. Eta badakit zertara etorri zeraten biok gaur goizean goizik honera. Txordon'ek esan zidan.

EDER: Eta zer uste dezu, aita? Konde jaunak bere eskubidea saldu nai izango duala?

TXISTU: Konde jauna oso diru-zalea da. Ni ezkondu nitzanean urre batzuren truke saldu zuen bere eskubidea, eta orduan orain baiña hoge eta hamar urte gazteagoa zan. Zu oso ederra zera, eta konterri guzian zu bezin neskatx egokirik ez omen dago, baiña, hau mundu guztiak daki, zure amaren ondoan atxo itxusi bat zenirudike. Hura zen ederra, hura! Haren edertasun ederraren edertasun ederra probintzia guzian ezaguna zen. Eta hala eta guztiz ere, lurralde hauetan sortu den emazterik galanten eta politen aukeran eduki arren, bere eskubidea saldu zuen. Bere belauneskubidea saldu zidan. Ez dago, beraz orain bestela egingo duala pentsatzeko motiburik.

EDER: Eta zergatik da hori, aita? Zergatik gizon batek, gure etxearen eta bizitzen jabe baldin ba da ere, zergatik izan behar du bere konterriko neska ezkondu berriak estreñatzeko eskubidea?

TXISTU: Jainkoak emandako eskubideak dira. Galde zaiozu erretore jaunari, eta argi ta garbi esango dizu: bera gure nagusia dela, hemengo lur eta etxe eta eskubide guztiak bereak dituela.

EDER: Baiña aita, gu ez gera abereak. Gure etxe eta gure lurren jabe izango da, baiña ez det ikusten zergatik izan behar duen gure eskubidean jabe. Hori ez da erretoreak elizan erakusten diguna. Berak dio Jainkoak gizonarentzat egin zuala andrea, eta andrearentzat gizona. Ezkontzako sakramentuaz mintzatzen zaigunean, gure senarra serbitu, maitatu eta honratu behar degula dio, eta milla kate, debeku eta uztarri jartzen dizkigu. Eta gauza auek guztiak esaten dizkigun momentu berean, artu eta kendu, konde jaunaren jauregira bultzatzen du andre ezkonberria, zezenarengana eramaten den txalaren antzean. Hori ongi al dago, aita, ongi al dago?

TXISTU: Alaba, utzi urak zubi-azpitik igarotzen, eta eliz-gizonentzat elizarenak diran gauzak. Elizak baditu bere jakintsuak. Dena dela, horretarako bildu ditu zure aitak bere urreak eta zilarrak txistuaren golpez eta indarrez herririk herri. Jaun kondearen gorputz ustelarekin kutsa zaitzen ez dago batere arriskurik. (*Jauregiko ateak irikitzen dira.*) Ara or dator Txordon Pilota. Erregate ederra izango zuan konde jaunarekin denpora asko pasa du ta. (*Jauregitik Txordon Pilota agertzen da.*) Txordon, Txordon goazen etxera, zuen ezkontzaren berri herri guztira zabaltzearren; munduko festarik ederrena apaindu behar baitugu gaur gaberako.

PILOTA: (*Serio, txit serio, aurrera dator; gaztea da, zimela, indartsua, ederra, baiña zaplada baten marka arpegian daramala esan ditake.*) Ez.

TXISTU: Ez?

PILOTA: Ez.

EDER: Ez?

PILOTA: EZ.

EDER: Ez du saldu nahi?

PILOTA: Ez du saldu nahi.

EDER: Zergatik? Ze arrazoi eman du?

PILOTA: Zurekin seme baztardo bat izan nahi du.

(*Ixil-une latz eta mingarria.*)

EDER: Txordon.

PILOTA: Zer, maite.

EDER: Iges egin dezagun emendik. Aitak baditu txanpon ederrak. Zaldi bi eros ditzagun, eta kondearen soldadoak kontura ditezen baino lehen Kastillan arkituko gera. Bertako herririk herri ez gaituzte billatuko.

PILOTA: Ez.

EDER: Zer egin behar degu bestela?

PILOTA: Hauzi hau legez konponduko da.

TXISTU: Legez, Txordon? Lurralde honetan jaun kondea da jabe eta lege. Nora jo dezakegu beraren kontra?

PILOTA: Horrera!

(Eliza señalatzen du.)

TXISTU: Eta zer egin dezake erretore jaun urrikarriak?

PILOTA: Bera da emen Elizaren ministroa. Eta gizonen legearen gañetik beste lege sendoago bat badago, Jainkoarena. Berak agintzen du bere lege santuan, lagun hurkoaren andrea ezin desiatu litekela. Eta pizti zikiñ horrek, konde jaun mixerable eta madarikatu horrek, nere andrea desiatzen du. Erretoreak aldi honetan kondearen kontra burukatu bearko du. Orain artean beti izandu da bere zerbitzari eta mutill leiala, baiña Ebanjelioan eskribiturik dago ezin serbitu litezkela bi jaun batera, ezin serbitu litezkeela kondea eta Jainkoa batera. Belaunaren eskubidea, neskatz ezkondu berriaren gorputza gozatzeko eskubidea, gizon dollor eta etoi batzuren legea baldin bada, erretore jaunak aitortu beharko du hori ez dela Jesukristok bere Ebanjelioan utzi zigun dotriña.

EDER: Eta ezer lortuko al degu?

PILOTA: Ez dakit. Baiña nola nahi ere gure alde burukatu beharko du.

EDER: Ez al-litzake ohea izango, Txordon, lehen esan detana egitea? Iges egin dezagun!

PILOTA: Ez, gure alde burukatu bearko du.

TXISTU: Txordon, nik ez dakit zuk diozuna egia den ala ez, baiña beti erakutsi izan zaigu eskubide izugarri hori Jainkoak emandako eskubidea dela. Zuk diozuna egia izango da, baina hemen, konterri honetan, bestela da. Nik zuk diozuna ez det ukatzen, baina nik diodana ere zuk ezin uka dezakezu. Ba dakizu erretorea nork aukeratu duen? Kondeak. Eta Eliza nork jaso duen eta erretorea nork pagatu duen? Kondeak.

PILOTA: Ez, eta milla bider ez. Lege bat dago zeruan, eta hura kunplituko da.

TXISTU: Txordon, Txordon... Gazte zera. Entzun zazu neri urteak erakutsi didaten lezioa. Nere buruaren gañeko ille urdiñak ez dira alperrikakoak. Jaun kondearen kutiziari burla egiteko ba daude milla modu eta medio.

EDER: Bai, aita? Esan!

TXISTU: Errezena hau da: gazteak zerate, eta konde jauna ezin balia diteke bere eskubideaz elkarrekin ezkontzen etzeraten bitartean. Eta zergatik ezkondu? Gure etxean hartuko zaitugu ostatuz, eta bitartean jaioko diran haurrak bastardo geratuko dira konde jauna ill arte, edo haren desioa bukatu arte. Gaiñera urreak aurreratuko ditugu, eta bizi-modu lasaiagoa edukiko dute nere illobak. (*Zalantza.*) Bestela bi ezta egin ditezke, estreñakoa elizan, eta biharamonean etxean bestea. Neskatz bat ez da aurreneko gauean ernari gelditzen. Nolanai ere, famili-barrenean kondearen seme bat edukitzea ez da hain gauza txarra gertatzen. Beraren herentziatik zenbait dukat beti eskapatzen dira. Eta gaiñera, hau da elizako aurrekaldeko aukietan jartzeko geratzen zaigun bide bakarra. Bestela badakigu zerk itxaroten digun, alaba. Bizitza estu bat, beti elizako atzeko aukietan, hauzokoen burlarekin. Zer egin dezakegu? Gaur egunean halakoa da mundu guztian behartsuaren bizitza.

PILOTA: Ez, ez eta ez. Orain ikasiko du kondeak herri honetan nola defenditzen den justizia. Abere likitxa! Urde zikiña! Judu zekena! Ikustekoak ikusiko dituzu, azeri maltzurra!

(Ukabilla astintzen du jauregiaren kontra.)

EDER: Txordon, geldi, arren ez zaitez horrela kejavu.

PILOTA: Kejavu? Hasarratu? (Elizara urbilizen da eta bertako atea jotzen du.) Erretore jauna! (*Gogorrago jotzen du.*) Erretore jauna! (*Pixka bat zabaltzen da atea. Zirrikitian Marika Beltza agertzen da.*) Aizu, atxo zarra, nun dago zure patroia? Atera dedilla berehala, aurrez aurre ikusi nahi baitut beraren arpegi zimela!

MARIKA: Jaun erretorea oso lanpeturik dago gaurko mezarekin. Jaun kondeak bere presentzia prometitu du, eta berak erregalatutako kalizari brilloa atera nahi diogu, urrezkoa ez dela jendia konturatu ez dedin.

PILOTA: Zer kaliza eta zer demonio! Esaiozu berehala ateratzeko, bestela nik bizkar ezurra berotuko dizut!

MARIKA: Zure mingaña lotu zazu. Ez al dakizu Jainkoaren atera jotzen dezula?

PILOTA: Jainkoaren atera jo eta beraren atzetik infernutar atxo beltz bat atera zait.

MARIKA: Erretoreak parte emango dio kondearen probestuari.

PILOTA: Parte edo nahi duana ematea berdin zait.

MARIKA: Joan zaitezte hemendik.

(Atea itxi nahi du.)

PILOTA: *(Zirrikatuan anka sartu eta ez dio itxitzen uzten.)* Bera ateratzeko, edo bestela ni sartuko naizela beraren billa.

(Baiña atea guztiz zabaltzen da, eta bertan Mosen Bertran agertzen da, urte askotako apaiz zaharra.)

MOSEN: Zer gertatzen da hemen?

PILOTA: Mosen Bertran...

MOSEN: Ze eskandalo da au?

PILOTA: Zurekin mintzatu nahi dugu.

MOSEN: Eta seme batek bere aitarekin mintzatzeko hainbeste zarata atera bear al du?

TXISTU: Barka zaiozu Txordon Pilota'ri bere aserre bizia. Ba dakizu nolakoa dan gazte jendea, beti sutsu eta minkor. Guk zaharrok hobeki konprendituko dugu elkar, eta hobeki tratatuko dugu gaur honera gakarzkien asunto illuna.

MOSEN: Eta zerk ekarri zaitue zu, Perrando Txistu, zure alaba eta pelotari sutsu hori?

TXISTU: Begira zazu, jauna; hemen gazte hauek elkarretaz enamoratu dira. Elizak agintzen duen bezela ezkondu nahi dute.

MOSEN: Bendizioa emango diegu eta kito.

TXISTU: Baiña oztopo txiki baten aurrean arkitzen gera.

MOSEN: Bai? Jaun kondearen eskubidea erosteko dirurik ez al dezue?

TXISTU: Hor dago, ba, kakoa. Ez du saldu nahi.

MOSEN: Eta zergatik?

TXISTU: Nere illoba baten aita izan nahi du.

MOSEN: Ene! Hainbeste urtetan ez da nere artaldean holakorik gertatu.

TXISTU: Horregatik gatoz, bada, zuregana.

MOSEN: Eta zer egin behar dut nik?

TXISTU: Belaunaren eskubidea ez da orain artean diskutitu iñoiz. Baiña oraingo gazteria oso idea aldrebesakin dator. Nik ez dakit egia izango den ala ez, baiña nere alabaren senargaiak Jesukristo Gure Jaunaren Legea agirira atera nahi du; Beraren amar mandamentuak aipatzen ditu, eta bat ain berexiki. Nik ez dakit mandamentu horrek jaun kondearekin zer ikusirik dadukanik, Jaunaren Legea gizon guzientzat berdiñ emana baita. Baiña ala baldin bada, badirudi nere alabaren senargaiak arrazoi pixka bat dadukala, aipatzen duen Jaunaren Legeko mandamentu hori, lagun urkoaren andrerik ez desiatzeko diguna baita; eta agirian dago, eta guztiz garbi, konde jaunak berea ez den andre hau desiatzen duela, bere egiazko andrea denok ezagutzen dugun kondesa guztiz noblea baita... Zer diozu, erretore jauna?

MOSEN: Hauzi ederra dakarzue, lagunak.

PILOTA: Bai, hauzi ederra, laixter ikusiko baita zeñen serbitzaria zeran.

MOSEN: Zer esan nahi dezu?

PILOTA: Gure alde daukagula Jaunaren Legea, eta gure kontra egiten badezu, Jainkoaren kontra egingo dezula.

MOSEN: Bai, zuzen zaude, seme, baiña barka zazu, jendea ba dator mezetara, eta hauzi hau ez da jendearen hurrean diskutitzekoa. *(Jendea alde guzietatik agertzen da, eta elizan sartzeraoan gure lau lagunei agur egiten diete. Hauek erantzun egiten dute.)* Bai, seme alabak, diplomazia haundia behar da honelako hauzi estu batean. Legea zuen alde dago, baiña badakizue indarra bere alde dagoela. Ez da?

Gaiñera ez dago presarik, ez dago batere presarik. Biar etzerate ezkonduko noski. Itxoin zazue. Eta gaiñera nola tratatuko degu hauzi nahastu hori emen bertan, jendearen aurrean, kalearen erdian?

PILOTA: (*Erretorea beso batetik eutsirik alde batera darama.*) Entzun, erretore jauna. (*Bere boza bajua da, baiña amenazuz betea.*) Gauza bat esaten dizut, eta ala da fede nere amak mundura, billutsik bota niñun bezela, kunplitu egingo detala. Marika Luze, zure serora beltz orrek berak esan digu gaur etzerala zu kondearen jauregira meza ematera joango, baizik bera etorriko dala gure artera herriko elizan meza entzutera. Bera jauregitik ateratzen danean, eta gaiñera elizan sartu baiño lehen, gure hauzia planteatu behar diozu, eta ongi planteatu gaiñera. Bestela Kalaorra'ko Obispoa'ren gana joko dugu, eta gutxi baderitzaizu, Erroma'ko Aita Santu beraren gana.

MOSEN: Eta entzun nahi ez badit?

PILOTA: Entzun nahi ez badizu? Badakizu zer egingo detan. Aldarearen ondoan itxoingo dizut, eta beraren erantzuna eman beharko didazu. Gaiñera esan behar dizut bere baimendurik edo eskubiderik ez degula erosi nahi. Konprenditzen dezu? Ez degula sosik emango. Berak ez baitu eskubide hori. Arrazoia kenduko diozu, eta ezetz baldin badio, orduan, mezerdian, zuk aldarearen aurrean Jaunaren Gorputz eta Odol Santua jasotzerakoan, nik kulpitora igo, eta Jainkoari eta herri guztiari salatuko diot kondearen portaera.

MOSEN: Txordon, seme maitea, ez zaitez, arren, orrela sutu. Hori ez da noble bat konbatitzeko modua. Indarra eta soldaduak bere alde ditu, eta horrela jokutzen badezu, kateak arkituko dituzu kalabozoaren barruan. Diplomazia beharko da, diplomazia eta esku ezkerria. Utzi nere eskuetan zuen asuntua, portu onera eramango baitut.

PILOTA: Baiña oroituz zaitez haren baimena ekartzen ez badidazu mezerdian zer egingo detan.

MOSEN: Bai... Bai... Holakorik ez dezu egingo. Jaunaren etxea horrela zikintzera atzera atrebituko.

PILOTA: Jainkoa jartzen det testigu.

(Gabon-Eder eta Perrando Txistu atzean doazkiolarik, jentearekin batean sartzen da elizan.)

MOSEN: Zuzen dago, ezin serbitu litezke bi jaun... Baiña horra nerean nun datorren. (*Jauregiko ateak zabaldu dira, eta bertatik konde jauna agertuko da, bere ondoan makiña bat serbitzari, gelari eta ezkutari daramazkila.*) Gure jauna, ondo errezibitua izan bedi beraren erriko plazan, ondo errezibitua izan bedi gu guztion aitaren etxean. Eta berorren emazte señoira kondesak ez gaitu bere presentziarekin atseginduko?

KONDEA: Zer egiten dezu hemen? Zergatik etzaude eliz barruan? Dagoneko, aldarearen aurrean egon behar zenuke, nik pagatu ditudan jantziz jantzirik, mezari asiera emateko nere zai. Eta kandesak andreak zer interes dezu zuk? Kontuz zer diozun.

MOSEN: Nere jaunak barkatuko dit. Artalde bat ongi gobernatzeko, artzaiak milla kuida du artu behar ditu bere ardiekin. Orregaik atzeratu da gaurko meza. Orregatik pixka batean itxoiteko pazientzia eduki beharko du gure jaunak.

KONDEA: Hea, ongi dago, utzi berrikerari eta barrura sar zaitez, ba dakizu ta herri zikiñarekin nere burua nastutzea etzaidala gustatzen.

MOSEN: Gure jaunak beste apur batean itxoiteko mesedea egingo dit. Hauzi bat dakarkit, nere ardi batzuek jarria, berehala juzgatu behar deguna. Oso hauzi delikatua da, eta ez det uste iñoren aurrean tratatu ditekunik. Gaiñera ahalik eta laisterren billatu behar diogu atera-bide bat. Orrela ba, gure jaunak serbitzariak eliz barrura bialtzeko mesedea egiten badit, momentu labur batean bukatuko degu.

KONDEA: Hea, ongi dago. Zuek barrura joan zaitezte. (*Ahalik eta laisterren elizan sartzen dira.*) Esan.

MOSEN: Ba... Esan behar dizut... Gaur nere iru ardi urbildu zaizkit... oso agindu aldrebes batekin... Jainkoaren izenean mintzatzeko egokiera balia ez banezake, ez nintzake ni iñola era hauzi hau gure jaunaren aurrean ateratzera atrebituko.

KONDEA: Alde batera erretolika luze hori, eta bota laburki zer dakarzun.

MOSEN: Gure Jaunaren familiak beti izan ditu oso aspalditik bere basalloen gañean zenbait eskubide. Bat ba dago bereziki, gure jaunak iñoiz gozatu nahi izan ez duena. Bere gizalege haundiarekin, gure jaunak beti galerazi du Elizamak bere printzipioen kontra jokatu behar izatea. Baiña esan didatenez, gure jaunak ez omen du aurrerantzean orain artean bezela jokatu.

KONDEA: Ikusten detanez, txistularia eta pelotaria zuregana etorri dira.

MOSEN: Gure jaunak bere adimen zorrotza probatzen du.

KONDEA: Baiña zuk ez dirudizu hain adimentu zorrotzik daukazunik.

MOSEN: Zer esan nahi du gure jaunak?

KONDEA: Erretore, begira horrera. Zer da hori?

MOSEN: Gure jaunaren jauregia.

KONDEA: Eta hor dagoena, zer da?

MOSEN: Eliza.

KONDEA: Eta norena da?

MOSEN: Gure jaunarena.

KONDEA: Erantzun doblea eman nahi didazu; baiña jakin behar dezu, bai, Goiko Jaunarena dela, egia, baiña Goiko Jaunak emen, dagoen guztia neri eman didala, adimentu haundiz dena gobernatu dezadan. Eliza ere nere da, eta barrenean dagoen guztia, aldarea, pulpitoa, pillareak, koloretako leioak, liburuak, jantziak, kaliza eta gañerako guztia. Zuk daramazun bonetea ere nere da. Eta Elizatik kanpora ere dena da nere, lurak eta soroak, etxeak, estalpeak eta mandioak, errota, ola eta perra-tokia, arbolak, beren frutak, agostuko uztak, erreken barreneko arraiak, basoko ehizak eta baita eguardian zeruan argitzen den eguzkia bera ere. Jabetasun hau, propiedade hau, ezin diskutitu liteke. Eta nik nere soldaduak ditudan bitartean ez da diskutituko. Konprenditzen dezu?

MOSEN: Bai, jauna.

KONDEA: Azken urte pare hauetan etzera nere gogoz portatu. Basolloekin konfiantza haundiak izan dituzu. Eta hau ez da nere gustokoa. Aurrerantzean serbitzari obedientegoa ez bazera, badakizu zer egin beharko detan.

MOSEN: Bai, jauna.

KONDEA: Herejertzat juzgatu, galeretara bialdu eta Obispoari erretore berri bat eskatu.

MOSEN: Ba daki gure jaunak ni baño serbitzari leialagorik ez dadukala.

KONDEA: Gaizki gobernatu dezu zure artaldea. Esan didate or perratzalle bat badagoela. Ez naiz orain izena nola duan gogoratzen. Zu oroitzen ote zera? Nola deritza?

MOSEN: Perrando Txistu.

KONDEA: A, bai, Perrando Txistu. Esan didate Zugarramurdi'ko akelarretik ateratako txistu bat jotzen duela, eta beraren soiñu lilluragarri eta enkantagarrieri eskerrak, herriko jendeak dantzako bizioari emanak daudela.

MOSEN: Bai, jauna?

KONDEA: Gaiñera entzun det alaba bat baduela sorgiñ zahar horrek aita bezela sorgiña bera ere. Aitaren soiñuak dirala medio, maixtra trebea omen da dantzako arte zikiñetan. Dantzatzen ikusi dutenak esan didate Herodias eta Salomeren enkantuekin lilluratzen omen dituela gizon gazteak, eta pekatu izugarrietara eramaten dituela.

MOSEN: Egia esateagatik, nik ez nuen pentsatu iñoiz pekatu iñor eraman zezakenik.

KONDEA: Jaun kondearen belarrietara herriko gauza guztiak etortzen dira. Ni hemen gertatzen diran gauza guzien jakiñaren gañean egoten naiz. Zuzmurra dabill ortik, Marika Beltza, zure serora, despatxatu egin nahi dezula, beraren lekuan dantzarisa hori jartzeko. Orain artean ipui orreri ez diot siñisterik eman. Baiña orain hoiende alde ateratzen zera, eta ez dakit zer pentsa ere.

MOSEN: Jauna, ni ez naiz enteratu ere dantzarisa hori bazenik...

KONDEA: Ala siñistu nahi det. Baiña esan didate elizan sartzea ez diezula ukatu.

MOSEN: Ez nekien, jauna, hori gure jaunaren desioa zenik.

KONDEA: Ez da nere desioa, zure obligazioa baizik.

MOSEN: Kunplitua izango da.

KONDEA: Beste gauza bat. Esan ere esan didate hortik bizi dela holako itzai morrosko bat, pilota jokoan oso trebea, txistulariaren alabarekin ezkondu nahi duena. Alegia, asmo horrekin jarraitzen duen bitartean ez da elizan sartuko. Gero, bein zentzutzen denean, pelota-jokoa kristau herriarentzat kaltegarria den ala ez den erabakiko degu.

MOSEN: Bai, jauna.

KONDEA: Jauregitik atera naizenean, hirurak elizan sartzen ikustea iruditu zait. Orain ni ere barrura sartuko naiz, eta nere lekuan jartzen naizen momentuan bertan, mezaren sakrifizioari asiera eman baiño lehen, hirurak botoak eta jaurtikiak izan behar dute Jainkoaren etxetik.

MOSEN: Bai, jauna.

KONDEA: Erretore berririk ez detala beharko espero dut.

(Geldi-geldi, elizaren barrenean sartzen da.)

MOSEN: Orain egitera nijoana ez da nere atsegiñekoa, baiña ala ere egin bearra da; bi mendetako ez baigera, eta iñork ez baititu mundu honetan bi bizitz, eta eguzki horren azpian geratzen zaizkidan urte pixarrak ez ditut galera batean arraun lodi bati katez lotuta igaro nahi. *(Geldi-geldi, elizako atera abiatzen da, eta biak zabalik jarririk, bere biriketako indar guztiarekin barreneko illunpetan deadar egiten du.)* Anatema! Deskomunioa! Zeruko sua eror dedilla etxe sakratu honen gaiñera, bere azpitik deabruaren lagunak bereala ateratzen ez badira! Deabruaren lagunak! Jainkoaren etsaiak! Anatema! Deskomunioa!

(Bere deadarretara zenbait jende elizatik ateratzen da, guztien buru Marika Beltza, bere serora.)

MARIKA: Zer gertatzen da, erretore jaun agurgarria? Nor da herejea? Nun dago?

MOSEN: Jaunaren presentzian bertan daude; beren zikinkeri ustelarekin Jaunaren etxea zitaltzen dute. Nere herrian ez al dago kristau leialik? Hoiek, pizti likits hoiek elizatik ez al ditu iñork botako? Edo soldadoei deitzeko premian arkituko al naiz?

MARIKA: Ez, jauna; Hemen daude gizon zintzo hauek denak, zure aginduak borondatez betetzeko prest.

MOSEN: Prest zaudete?

BATZUK: Bai, agindu. Kanpora herejeak.

MOSEN: Orduan entzun. *(Eztul egiten du, boza lodiago atera dakion.)* Elizama Santak nere ahotik gizon eta kristau desleial bat deskomulgatzen eta bere altzotik botatzen du. Herri honetan Zeruaren legeak eta Munduaren legeak dituzten agintari nagusiak elkarrekin eta Jainkoaren Espirituarekin bildurik, halako pena izugarria juzgatu eta kondenatu dute gizon hori, anatemaren eta deskomunioaren pena izugarria. Haren izena oso ezaguna eta preziatua izan da orain artean hemengo herrian eta aldameneko beste herrietan. Haren izena hau da: Perrando Txistu! Gizonaren itxura jator bat harturik, mundu guzia engañatu du, eta iñor ez da konturatu ere egiñ noraiño eltzen zen bere zitalkeriaren eta zikintasunaren ondar ustela. Zugarramurdi'ko akelarretik ateratako txistu enkantagarri batekin gure gaztedi sanao pozoitu du, eta dantzako bizio nazkagarrira gure gazte jendeak eraman ditu, bai neskak eta bai mutillak. Haren medio Satan'en erreinu infernutarra gure buruez jabetzeko arrixkuan arkitu gera. Baiña Jainkoaren ministroak zelatari eta erne egon behar du, eta horrela arkitu ditu bizioa eta pekatua zegozten lekuan bertan, eta sustraietik atera nahi ditu aserre santuz beterik.

BATZUK: Kanpora elizatik Lutero'tarrak. Kanpora elizatik herejea! Kanpora elizatik sorgiñ madarikatua!

MOSEN: Itxoin oraindik pixka batean. Hemendik aurrerantzean ez du iñork herri honetan txistuaren soiñura dantzatuko. Agindu hau austen dutenak, txistulariaren

zigorketa bera mereziko dute. Txistulariari bere deskomunioa ken dakiogun, bere txistua apurtu beharko du, herri guziaren hurrean kondenatu beharko da, eta gaiñera penitentzia bat jarriko zaio: txistua jotzen herririk herri irabazi dituen urrezko dukat eta zillarrezko diru guztiak elizari entregatu beharko dizkio, nik nere zuhurtasun haundiarekin pobreen artean limosna ugarietan parti ditzadan.

BATZUK: Bai, ongi esana. Atera dezagun elizatik pekatari zikiña!

MOSEN: Baiña itxoin, eduki ezazue oraindik pazientzi apur bat, gure tribunaletik ateratako sententzia guztiak ez baitira oraindik bukatu.

JENDEA: Herejeak kanpora! Sutara eraman ditzagun! Urkamendira! Kartzelara!

MOSEN: Mundu guziak ezagutzen du txistulariaren alaba, eta nolako abilitade zikiñarekin dantzatu duen beti aitaren soñu eta kantuetara. Harentzat ere izan bedi gure deskomunioa. Hura ere elizatik kanpora! Hura ere gure alkartasunetik aparte!

JENDEA: Fual Aparte! Kanpora! Kartzelara! Sutara!

MOSEN: Eta askok ez dakizue, baiña bada ere oraindik gauza grabeago bat. Dantzarisa horrek gure arteko mutill prestu bat lilluratu du. Txordon Pilota etsai beraren sareetan erori da. Mendiak ikara bitez! Lurra ebaki bedi! Elizako pillareak amill bitez! Etxe guziak lurrarekin berdindu bitez! Sorgiñ gaztearekin ezkondu nahi du, Elizaren barruan, aldarearen aurrean, pillarearen ondoan, eskuak liburuaren gaiñean! Hainbeste bidegabekeri, hainbeste okerbide eta lotsagabekeri ametituko al-ditugu? Herria trankil eta lasai geratuko al da? Gure artean kristaurik ez ote dago? Guztiok barrura! Atera ditzagun Jaunaren etxetik! Defendi ditzagun egitazko fedea eta legea! Atozte nerekin, kristauak, Satan doakabearen obra bildurgarria desegitera.

(Baserritarrak oihu, deadar eta karraxika daudela, denak elizan sartzen dira, apaizaren ondoan. Momentu batzutan utsik gelditzen da agertokia. Geroago, balantzaka eta arrastaka, elizatik ateratzen da Txordon Pilota, katapulta batek jaurtikia bezela, eta jauregiko paretaran kontra erortzen da lurrera. Apur bat geroago, Txordon'en moduan ateratzen da Gabon-Eder, eta Pilotariaren gaiñean erortzen da. Barruan zarata haundia, golpe otsa, karraxiak. Dena ixiltzen da, eta lau gizonak, bik anketatik eta beste bik besoetatik eusten diotelarik, gure Perrando Txistu ateratzen dute, eta elizako atariaren aurrean bertan pausatzen dute golpean lurraren gaiñean. Barrura sarturik, ateak ixten dituzte. Ixillik geratuko da dena momentu batzutan. Gero, bat batean, atea zabalduko da berriz ere, eta barrendik txistua botako dute, eta ager-tokiaren erdian eroriko da. Lurpetik ostiko bat eman balioeteke bezela, salto batean altxatzen da Txordon Pilota.)

PILOTA: Nun dago justizia? Nola okertu da hain tankera desegokian zuzenbidea? Zer dira gaur eguneko apaizak? Aberetsen morroiak? Nobleen serbitzariak?

EDER: *(Lurretik.)* Oraindik badegu denbora, Txordon. Iges egin dezagun.

PILOTA: Iges?

TXISTU: Zaudete ixillik, aurrak.

PILOTA: Ixillik?

TXISTU: Bai. Ez al dezue ikusten zer irabazi degun gure jokabidearekin? Eta ez al dakizue zer esan nahi duen elizatik botatze honek? Infernuko atean arkitzen gerala. Ez al zerate konturatzen? Elizatik kanpora iltzen dena infernura dioa, holakoak ez du salbaziorik!

PILOTA: Eta zeruko atearen giltzak nork ditu? Pedro deunak edo Jaun Garcia, Mujika'ko kondeak?

TXISTU: Elizak ditu, eta etzait inporta nork maniatzen ditun, Sakramenturik gabe, nola salbatuko gera? Nola barkatuko zaizkigu gure zorrak eta pekatuak?

EDER: Orrek ez du inporta, aita. Lurrean bizi gera, eta etorkizunaren berririk ez dakigu.

TXISTU: Etorkizunaren berririk ez daukagula? Nik bai, ba dakit zerk itxoiten didan. Betirako su gorriak. Satan beltzaren laguntza azkengabeak. Eta ba al dakizu zer pentsatzen detan? Kristau batentzat, animaren salbazioak duela inportantzirik aundiena; eta nik zuek eta neregatik begiratu behar dut. Apaizaren esanetara makurtuko naiz. Txistua puskatuko dut, eta berak jarritako penitentzia kunplituko dut. Nere diru guztia beartsuen artean zabalduko dut. Honela nere pekatuak barkatuak izango zaizkit.

(Lurrean belaunikatzen da, elizara begira.)

TXORDON: Eta gure ezkontza? Eta gure maitasuna? Esan, zer izango da gure familiaz? Gozatutako lore bat entregatuko al zait nere esposarioan? Erantzun Txistu, erantzun! (*Baiña Txistu'k ez du entzuten, ez du erantzuten, otoitz egiten du.*) Zer gertatzen zaizu? Orain errendituko al zera? Gure burrukaldia asi behar degun orduan? Erantzun! (*Txistuk otoitz egiten du.*) Erantzun!!

EDER: Zaude ixillik, maite. Boz miragarri batzuek entzuten ditut. Aingeruak dira, zerutik lurrera gu salbatera datozenak.

PILOTA: Baiña erotu egin al zera?

EDER: Dantzara deitzen didate. Baiña txisturik gabe ez dakit dantzan egiten.

PILOTA: Perrando, begira zure alabari zer gertatzen zaion. (*Txistuk otoitz egiten du.*) Eder, zer diozu? Zure senera bihurtu zaitte! (*Eder zutik dago, eta tankera estraño bat artu du, amets lilluragarri batek artu balu bezela.*) Baiña zer da hau? Aita eta alaba, biak deabruak arrapatuak?

EDER: (*Geldi-geldi.*) Nik txisturik gabe ez dakit dantzan egiten. Nere aitak jo dezala txistua, aingeruekin batera zerura dantzan abiatu nadin. Aitak txistua jo dezala.

(Eta bere gelditasun estraño aretan ixillik gelditzen da.)

PILOTA: (*Txistua artzen du lurretik.*) Lurraren gañean edo zeruaren barrenean justizia apur bat iñun baldin badago (*txistua zerura astintzen du*), Goiko Jaunari esijitzen diot, ez eskatu, agindu eta mandatu egiten diot, nere Gabon-Eder maiteak zorion izpi bat izan dezan, txistu honek berez jo dezala, bildurrak eraginda bere alabaren miña arindu nahi ez duen aita bat munduan dagoen ezkerero. Ez eskatu, agindu egiten dut! Txistuak berez jo dezala!

(Eta poliki-poliki, txistua bakarrik jotzen asten da. Erreberentzia lurreraño egiten du Txordon Pilota'k, eta begiramendu haundiarekin txistua lurrean uzten du. Txistuaren soñuan, Gabon-Eder dantzan asten da. Perrando Txistu ez da mugitzen: otoitz egiten du. Elizatik jendea ateratzen da. Ikusten du nola Gabon-Eder kale ixkiñatik dantzan dijoan, eta jira eta bueltaka airean altxatzen den, odei artean ezkutatzeko.)

MARIKA: Ikusten dezue zuek, jende onak, nere begiak ikusten dutena? Gabon-Eder iñork jotzen ez duen txistu baten soiñuetara lurretik aidean altxatzen da, eta hodei artean dantzan, jira eta bueltaka, aingeruzko zeruetan barrena ezkututzen da. Ori mirarla da!

MUNDU GUZTIAK: Miraria!!

KONDEA: Ez, ori deabrukeria da!

HERRIA: Miraria!

MOSEN: Infernukeria!

(Mundu guztia karraxika. Eta guztion gañetik, Txordon Pilota'ren boza entzuten da.)

PILOTA: Or dezue justizia!

HERRIA: Jainkoaren miraria!

AGINTARIAK: Deabrukeria!

PILOTA: Justizia txistulari biurtu da!

TELOIA

BIGARREN ZATIA

(Milagrua gartatu zenetik illabete batzuek igaro dira. Lehen zatian ikusi genuen leku haretan bertan gaude. Kadira altu baten gainean egonik, Palazioa arkituko da. Beraren gorputzera bilduko dira kolore guztietako farolen argiak. Haren ondoan, beste kadira ttikiago batean jarririk, Joane Doktore kausituko dugu, apainki jantzirik. Haien inguruan, grupotan banaturik, komedia honetako pertsonaje guztiak arkituko dira; grupo bakoitza kolore bateko farola baten argitara jarria. Eta Arlote mintzatzen da.)

ARLOTE: Doktore? Zu al zera Doktore? Joane Doktore famatua?

DOKTORE: Jende zatarra, zerritokian jaioa. IXILDU ZAITEZ.

ARLOTE: Baiña nun ikasi zenuen zuk medikutza, doktore izateko?

DOKTORE: Nere doktoretza ez dator gaixoak ill-arazitzeagatik!

ARLOTE: Ze Unibersidadetan eman zizuten titulo hori?

DOKTORE: Nere aitak eman zidan.

ARLOTE: Aitak emana?

DOKTORE: Eta herri honetan ostatu bat nun arkitu liteke?

ARLOTE: Ai, laguna! Herri hau ez da gaur egunean denbora batean izandu zen bezain inportantea. Gaur gaurkoz, herri apartatu eta ahaztua da.

DOKTORE: Milagroak jende asko ekarri aldu?

ARLOTE: Euskal-Herri guztitik millaka eta millaka etorri dira. Azkeneko egun pare abetan allegatu diran kastellano eta Aragoi'tarrak ere ez dira gutxi izandu. Akitaniatik eta Frantzi aldetik ere batzuen batzuk azaldu dira, Santiago bidetik etorriak.

DOKTORE: Eta zuk nola arkitu zenuen lekua?

ARLOTE: Aita San Jose eta Maria Birjiña'ren moduan, ganadu portale batean akomodatu naiz.

DOKTORE: Zurekin eramango al nauzu?

ARLOTE: Lekua badago; baiña ez dakit zure arropa eder eta dotore oiek ez zikintzeko nola konponduko zeran. Lastoa ugari dago, baiñan an bertan azienda eta abere batzuek sartzen dituzte gauero. Nere laguntza oso garbia irudituko zaizu haiekin konparaturik. Bart arratsean auntz bat arkitu nuen estalpe aretan.

DOKTORE: Eta seguru al zaude lo egiteko gelarik ez detala iñun arkituko?

ARLOTE: Billa zazu nunbaite. Alperrik aspertuko zera.

DOKTORE: Orduan zure adiskidea izatea beste erremediorik etzait gelditzen.

ARLOTE: Mundu guzia izan da orain artean nere adiskidea.

DOKTORE: Zuk daramazun traza horrekin gauza zailla iruditzen zait.

ARLOTE: Kardenalak eta Printzipeak ere izan ditut adiskide.

DOKTORE: Adarra jo nahi al didazu?

ARLOTE: Adarra jo? Nun dabill, ba, zure andrea?

DOKTORE: Ez det andrerik. Soltero nago.

ARLOTE: Eta deskuido batean noizbait arrapatzen bazaituzte, zer egin behar dezu?

DOKTORE: Deskuido batean arrapatzen banaute, ezkondu egingo naiz; baiña ni aldarera eramango nauen amaren alabarik ez da mundu honetan jaio.

ARLOTE: Oso bide txarra daramazu, laguna.

DOKTORE: Bide txarra?

ARLOTE: Bai, oso bide txarra. Gizonak garaiz ezkondu bear du, sasoiz dagoen bitartean. Orain, gazte zeran bitartean, oso ederki ibilliko zera neskamearen oietik dukesaren oiera. Dibertsio polit hoiek oso ederki etortzen zaizkio gizonaren

gorputzari; baiña gazte den artean bakarrik. Gero gizona, gizon errukarria, urteen buruan zahartu egiten da. Eta gauza hau gizon guztiei gertatzen zaie, bai pobre ta bai aberatsei. Ez al dakizu Luzaideko bertsolariak kantatuko duena?

(Kantari asten da.)

Ene espirituan
Ba zen zenbait bertsu
Oraino den guzia
Ez zeraut ustu
Zertaz dudan solasa
Emazue kasu
Esplikatuko baitut
Ahal bezain justu
Zahar baina prestu
Odola zait hoztu
Bihotza ere laztu
Gorputza hertsatu
Oraino gazte banitz
Banuke gustu.

DOKTORE: Baiña gizona, bertso hori kantatuko duen bertsolaria ez da Luzaide'n jaioko. Bidarrain jaioko da.

ARLOTE: Bordel bertsolaria Bidarrain jaioko dela? Gizona, zu burutik eginda zaude. Bordel Nafarroa zarreko Luzaide'n jaioko da.

DOKTORE: Bai, badakit Bordel Luzaide'n jaioko dela. Baiña bertso hori kantatuko duen bertsolaria ez da Bordel izango. Otsalde izango da.

ARLOTE: Otsalde? Otsalde'k bertso hori kantatu? Otsalde ez da bertsolaria izango. Otsalde bai al dakizu zer izango den? Poto besterik egingo ez duen bertso gille aldrebes bat. Baiña nork entzun du iñoiz Frantzi aldean bertsolariarik dagoenik? Egiazko bertsolariak Nafarroan jaioko dira: Lasarte, Narbarte... eta beste milla.

DOKTORE: Baiña zer diozu, asta-kirten horrek? Naparroan bertsolarien denporan ez da euskaldunik izango. Zenbait lekutan gordeko da euskera, baiña Gipuzkoa eta Lapurdi'ko inguruko herrietan bakarrik. Gañerakoan, Iruñ-inguru guztian erruz galduko da euskera, eta bertan ez da bertsolariarik jaioko, eta bertako jendeak Aragoi aldeko jota piperrak kantatzen besterik ez dute jakingo. Bai, lagun; emendik lareun urtera, Naparroa guztiz erderatua arkituko da.

ARLOTE: Baiña zuk nola dakizu etorkizunaren berri?

DOKTORE: Izena nundik datorkidala uste dezu, nere jakituria haunditik baizik?

ARLOTE: Bai; Joane Doktore haundia.

DOKTORE: Nere aita Elizako Doktore haundi bat zen.

ARLOTE: Elizako doktore haundi baten semea?

DOKTORE: Bai, Italian jaioa.

ARLOTE: Nik gizon bat ezagutzen det, Elizako doktore baten semea hura ere; baiño hura Ingalaterran jaioa da.

DOKTORE: Zure ezagun bat? Nola ezagutzen dezu zuk, herriko seme billau horrek, horrelako jende printzipala?

ARLOTE: Lehenere esan dizut.

DOKTORE: Kardenalak ta printzipeak zure lagun dirala?

ARLOTE: Bai jauna; oso adiskide aundiak.

DOKTORE: Eta nundik ezagutzen dezu Elizako doktore horren seme hori?

ARLOTE: Jaiotzatik. Elkarrekin jaio giñan. Gizon hura ni naiz.

DOKTORE: Gauza bakana da hori.

ARLOTE: Bai, benetan estrañoa.

DOKTORE: Sekulakoa.

ARLOTE: Oso gutxitan ikusitakoa.

DOKTORE: Nere aita Ingalaterran bizi izandu zen luzaro, eta Ingalaterran jaio ziñan...

ARLOTE: Nere aita italianoa zen, eta zu Italian jaio ziñan...

DOKTORE: Gaiñera zuk etorkizunaren liburua irakurtzen badakizu. Eta birtute hori Arlote jakintsu haundiaren semeeri bakarrik eman zaie...

ARLOTE: Nere izena horrela da.

DOKTORE: Nola?

ARLOTE: Petri Arlote.

DOKTORE: Eta nereea berriz...

ARLOTE: Joane Doktore...

DOKTORE: Orduan gu biok...

ARLOTE: Anaiak gera!

DOKTORE: Elizako doktore Arlote aundiaren...

ARLOTE: Semeak!

DOKTORE eta ARLOTE: Anaia!!! (*besarkatzen dira*).

ARLOTE: (*Kantari.*)

Doktore eta Arlote dira
jakin gaberik anaiak.
Biok ekarri gaitu mundura
Italia'ko galaiak.
Orain artean ez gera izan
oso profeta alaiak.
Aurrerantzean behar ditugu
aurkitu bide zelaiak.

DOKTORE: (*Kantuz.*)

Hementxe Petri Arlote
eta Joane Doktore.
Gure aita zen Italia'ko
gutziz gizon noble.
Profeta gera gure denboran
eta ez bagiña hobe.
Kontu honekin dirua ateraz
ez gera biziko pobre.

ARLOTE: Zer esan nahi dezu?

DOKTORE: Milagroetako herrira iritxi gerala esan nahi dut.

ARLOTE: Bai, milagro baten usaira etorri naiz ni ere.

DOKTORE: Eta zer gertatuko da emen bi profeta jendearen etorkizuneko bizitza igarritzen asten badira?

ARLOTE: Mundu guztiak siñistuko duela.

DOKTORE: Eta gaiñera ezkutu eta dukat ederrak pagatuko dituztela.

ARLOTE: Eta diru hoiek gure sakelera etorriko dirala erdi-bana.

DOKTORE: Bai, negozio biribilla presentatu zaigu.

ARLOTE: Arront aberastuko gera.

DOKTORE: Gure pobretasuna bein eta betirako igesi joango da.

ARLOTE: Emendik aurrerantzean zaldun nobleak izango gera.

DOKTORE: Santiago'ko ordenakoak izendatuko gaituzte.

ARLOTE: Eta ez degu ostatu pobretik ostatu pobrera ibilli bearrik izango.

DOKTORE: Ez, gizona. Baiña ahalik eta laisterren asi gaitezen.

ARLOTE: Zer egingo degu?

DOKTORE: Ortik dabillen jendeari dei egingo diogu. Zu mintza.

ARLOTE: Bai orixe. (*Asten da.*) Mundu guztiak aditu beza! Urbillbedi mundu guztia gure esanetara. Hemen bi profeta daude. Italia'tik etorri berriak. Etorkizuna axertatzen da. Ez beza iñork zalantzik eduki. Guk igarriko degun guztia pausorik pauso eta punturik puntu erremediorik gabe kunplituko da. (*Argiak, jendea. Sei grupoak: Gorria. Urdiña. Oria. Berdea. Anilla. Naranja. Kondea eta gelariak. Marika Luze eta Perrando Txistu. Txordon Pilota eta mugimentuko mutillak. Inkisidore*

jaunaren serbitzari eta kalonjeak. Kondesa andrea. Apaiza eta haren serorak.) Mundu guztiak entzun beza! Mundu guztia urbill bedi gure esanetara! Hemen igertzen da munduaren ardatzak nola jiratzen duen, nundik eta nola dabillen! Hemen estudiatzen da izarretako geometria, zeruaren alde batetik bestera nola mugitzen diran, eta pertsona bakoitzaren etorkizuna nola agertzen duten! Urbill zaitetzte! Etor guregana! Hemen egi-egitazko bi profeta arkituko dituzue: Petri Arlote eta Joane Doktore, biak Italia'tik etorri berriak. Bertako gizon jakintsuekin ikasi genituen filosofia eta teologia. Eta gero Elizako Doktore famatuekin gure jakituria franko ugaritu zen! Elizako Doktoreak asko kariñatu ziran gurekin, eta aien artean bat batez ere, guztietan famatuena eta jakintsuena, libururik lodienak eskribitu zituena, gure aita bera! Gure ama gaxoak munduko bi toki diferentetan ekarri giñuen mundura, eta orregatik bizi izandu gera gaur arte elkarrengandik aparte. Baiñan gaur atzenik alkar topatu degu, eta auxen bai dela milagroa, Gabon-Ederrena baiño askotaz milagro haundiagoa. Urbill zaitetzte! Aditu zazue! Entzun itzazue gure esanak! Emen etorkizuna igarritzen da! Italia'tik Orientera joan giñan, eta bertako Errege Mago modernoek jakituria ikasi genuen! Adibidez: txori baten tripa begiratu, eta bertan ikusitakoarekin urteen buruan gertatuko diran gauza guztien arrastoak nola billatu. Kartak nastu, eta zer ordenatan ateratzen diran kontua edukirik, oraindak gertatu ez diran gauzen kontu zeatz eta garbia nola eman. Urbill zaitetzte! Gure aldamenara etorri! Orienteko jakituriak artu ondoren, Afrikako beltzen artera joan giñan, eta bertako sorgiñ beltz osagilleen jakituria guztia gureganatu genuen. Bertako lurrak utzi eta India herrietako Inperio zaharretara artu genuen abiada. Gure begiok mundu guztia ikusi dute. Guretzat ez dago iñun sekreturik. Misterio guztiak urratu dira gure jakituria nagusiaren azpian. Emen bi profeta daude.

Neskatilla: Zure senarra nolakoa izango den jakin al dezu? Petri Arlote'k esango dizu.

Agure: Eriotzak konfesatua arrapatuko zaitun edo ez jakin nahi al dezu? Joane Doktore'k igarriko dizu.

Gizona: Zure andrearen maitalearen izena jakin nai al dezu? Petri Arlote'k jakiñaren gañean jarriko zaitu.

Andrea: Espero dezun aurra neska edo mutilla izango den alde aurretik jakin nahi al dezu? Joane Doktore'k esango dizu.

Mutilla: Datorren igandean zure xarmanta nun zai egongo zaizun igarri nahi al dezu? Petri Arlote'k aditzera emango dizu.

Jaun andreak: Ona emen egitazko bi profeta: Petri Arlote eta Joane Doktore. Matatias eta Nataniel gure aldean ikasle pare umill bat besterik etziran izandu. Jeremias eta Isaias, artzai ezjakiñ batzuek.

ta jaun andreak, zuen etorkizunaren berri jakitea bost dukat besterik etzaizue kostako. Nun merkeago!

(Momentu batzutan illun aldia.)

(Argia berriz ere pixtutzen danean, agertokia betikoa izango da: ezkerrean eliza eta eskubian jauregia. Baiña ikuslearen aurrean anakronismo aundi bat agertuko da. Plazaren erdi-erdian bulego-mai moderno bat arkitzen da. Haren alboetan kartel haundi pare bat; ezkerrekoak honela dio; Profetak: Etorkizuna igarritzen da; eta eskubikoan PROFEZIAREN PREZIOA: BOST'na DUKAT. Maiaren ondoan Arlote eta Doktore daude.

Argi anilla.

Andre kontesa sartzen da, bakarrik.)

KONTESA: Jaunak, andre bati bere estuasun larri batean lagunduko al diozue?

ARLOTE: Zure serbitzarien aurrean arkitzen zera.

KONTESA: Iñork ikusi gabe atera naiz jauregitik. jaun kondea zuek ikustera atera naizela konturatuko balitz, komentu batean monja sartuko ninduke, edo gaztelu batean preso.

ARLOTE: Gure ixiltasuna kanposantuetan arkitu litekena bezelakoa izango da.

KONTESA: Sekretua gordeko didazue? Zaldunaren itza ematen al didazue? Jesukristoren izenean ziñ egingo al zenuteke?

ARLOTE eta DOKTORE: Bai.

KONTESA: Ni emakume bat besterik ez naiz.

ARLOTE: Oso emakume xarmanta.

DOKTORE: Eta maitagarria.

KONTESA: Eskerrik asko, baiña egia diot. Ni urrezko seaska batean jaio nintzan, eta beti esan didate nere jaiotzak obligazio haundi batzuek ekarri zizkidala. Obligazio haundiak eta eskubiderik batere ez.

ARLOTE: Mintza zaite, faborez, oso pozik entzuten baizaitugu.

KONTESA: Komentu batean edukatu ninduten, eta konde jaunarekin ezkontzeko bakarrik handik atera ninduten. Eta kondearekin izan detan bizimodua ez da oso atsegiña izan. Trankilla bai; beti jauregian sartua, dozenaka serbitzarikin, gelatik jantokira eta jantokitik gelara.

DOKTORE: Bestelako tratamentua merezi zuen horrelako andre eder batek.

KONTESA: Ez nuen iñoiz konde jauna maitatu. Harekin jarri zitzaidan obligazioa beti kunplitu izan det, baiña nere sakrifizioen ordañez, Zeruko Jaunak ez dit ama izatera irixteko grazia eskeñi. Haurrik izan baldin banu, bestelakoa izango zen nere bizimodua; baiña antzu sortu nitzan mundura, eta seme-alabarik ez det izan. Horrela ba, nere bizitza eremu legor baten antzekoa izan da.

DOKTORE: Andre gaxoa.

KONTESA: Gero kondea gerrara joan zen. Moroek kontra burukatu zuen, Kastilla eta Nafarroa'ko erregeekin batera. Eta ez dakizue nolako iraiñarekin afrentatu ninduen... Etzuen uste izan haren etorrera garbi gordeko nuenik, eta atso zar baten bijilantzia jarri zidan, beste gizon batekin amorerik izan ez nezan...

ARLOTE: Akerraren adarrak merezi zituan madarikatuak.

KONTESA: Nik ez nion orduan iñola ere adarrak jarriko; baiña bera etzen nitaz fio izan. Eta ordurarte maitasunik izan ez banion, andik aurrera gizonari behar zaion errespetoa ere galdu egin nion. Eta orduan egin zidan iraiña egunen batean bengatzeko desioa sortu zitzaidan bihotzean...

ARLOTE: Emen gaude gu, zuri laguntzeko prest.

KONTESA: Baiña oraingo hau nere dignidadeak ezin soportatu dezake.

DOKTORE: Zer egin dizu, ba?

KONTESA: Orain artean leiltasuna beti gorde izandu dit. Ez du beste andrerik ezagutu. Behar bada eta seguru aski, andreak dirua kostatzen dutelako; edo ta, bestela, haiekin ez gozatzetik bere kutxara dirua sartzen zelako.

ARLOTE: Eta orain?

KONTESA: Orain zahartu egin da. Eta zahartzaroan, zeken guztiak ero. Neska gazte baten ganako desioa pixtu zaio erraietan. Eta desio zikiñ orretatik milla okerbide atera dira: Txistulari zahar bat erretorearen seroraz enamoratu da, eta berarekin batera Ebanjelio berri bat predikatu nahi du munduan zear. Erretoreak berriz, iñun arkitzen ez dituen sorgiñak erre nahi ditu, eta Logroño'ko Inkisidore nagusiari dei egin dio, eta hau bidean omen dator.

ARLOTE: Nola dakizu Inkisidorea bidean dagola?

KONTESA: Nere senarrak esan zidan, eta gañera herri guztiak dakien gauza da.

ARLOTE: Eta Inkisidorea bidean dagolarik, nola atrebitzen zera profeta baten gana etortzera? Ez al dakizu hura etortzean zure kontra saiatuko dela?

KONTESA: Ez dit inporta. Gerokoak gero. Orain bestek arduratzen nau. Pilotariaren suerte trixteak. Pelotaria eta Txistulariaren alaba elkarrekin ezkontzekoak ziran. Eta nere senarrak, bere eskubideaz baliatuaz, neskatxaren gorputza gozatu nahi izan zuan. Baiña orain bestela gertatu da. Eta horain gertatutakoak ill arte negarretan egotea merezi du. Neska mundu honetatik itzali egin da...

ARLOTE: Milagroa omen da.

KONTESA: Erretoreak deabrukeria dala dio Horregatik deitu dio Inkisidoreari. Milagroa dela diona, Erretorearen serora zaharra da, orain Ebanjelio berria predikatzen dabillena. Baiña ba daude gertakizun honetan mundutik kanpora ezer ikusten ez dutenak, eta hemen milagro bat izan dela siñistu nahi ez dutenak. Oietako bat nere senarra da. Bera seguru dago Gabon-Eder bere senargaiak nunbait gorderik dadukala, honela kondearen eskubideari amorrik ez emateko. Txordon Pilota ere iritzi berdiñekoa da. Hau seguru dago kondeak Gabon-Eder berarekin nunbaitera eraman duala, horrela bere gorputza nahi aiña gozatzeko. Baiña biak engañatuak daude. Nik ez dakit zer gertatu zen, baiña Gabon-Eder ez dago mundu honetan.

ARLOTE: Orduan beste munduko indarrak parte artu zuten hura zerura edo infernura eramateko.

KONTESA: Nik ez dakit hori, baiña seguru nago Txordon Pilota engaño batean dagoela, nere senarrak ez baizuan beraren andregaia arrapatu. Eta seguru nago, ez dakit zergatik, baiña seguru nago Txordon Pilota'k ere ez duala ezer ikustekorik Gabon-Eder'en izkutatzearekin. Bestela ez litzake nere gizonaren soldaduen kontra mendirik mendirik burrukan ibilliko, mutill euskaldun batzuek berarekin daramazkiela.

DOKTORE: Ederki. Diozun guztia oso ederki dago, baiña esaiguzu honera zerk zakartzkien.

KONTESA: Txordon Pilota'ren desgraziak. Bera da gizon aproposa, bera! Belaun-eskubidearen tratua nere senarrarekin diskutitzera jauregira etorri zanean, berarekin ikustaldi bat izandu nuan. Gero kortinen atzetik biok esandako guztia entzun nuen, eta egia diot, bera da nere ametsetako gizon desiatua. Dontzella denpora komentuan igaro nuanean, horrelako gizon batekin gauero amets egiten nuan... Gero kondea tokatu zitzaidan, eta nere zoritxarra horrela asi zen.

ARLOTE: Eta zer nahi dezu?

KONTESA: Hea zuek Txordon Pilota nun topa dezaketan esaten didazuen. Hura konsolatu nahi det. Eta batez ere gerra zaletasuna kendu nahi diot. Ez dut nahi bera mendirik mendirik gerran ibilli dedin. Alperrik izango da. Gabon-Eder ez da orregatik beste mundutik berriz etorriko. Bere maitasuna galdu du, eta nire kontsolamentua eskeñi nahi diot.

DOKTORE: Informe hori ematea gure eskuetan dago.

KONTESA: Bai? Informe hori ematen badidazue, munduko mesederik haundiena egingo didazue.

ARLOTE: Bai al dakizu Aitzpitarte'ko mendia nun dagoen?

KONTESA: Bai, gutxi gora-bera.

ARLOTE: Bere egalean errota bat dago.

KONTESA: Morroi batek eramango nau hara.

ARLOTE: Biar goizean eraman zaitzala. Goizeko zazpiretan Txordon Pilota an arkituko dezu.

KONTESA: Milla esker. Ba noa, kanpoan egon naizela jauregian iñor konturatu dedin baiño lehen. Zenbat zor dizuet profeziagatik?

DOKTORE: Andreai ez diogu kobratzen.

KONTESA: Milla esker, eta agur. Eta badakizue. Itza eman didazue. Ziñ egin didazue. Dena sekretua izango da?

ARLOTE: Dena sekretua izango da.

DOKTORE: Illobietako abotsa izango da gurea.

(Ba doa kontesa eta illun aldia.)

(Argi berdea.

Iru mutill sartzen dira. Gazteak, pizkorrak, indartsuak.)

1.º MUTILLA: Geldi hor zuek, ez zaitzte muiitu!

ARLOTE: Zer gertatzen da!

DOKTORE: Nortzuk zerate zuek?

2.º MUTILLA: Zuek profetak al zerate?

DOKTORE: Bai, eta zuek? Zer nahi dezue?

3.º MUTILLA: Gu nor geran zuri etzaizu inporta.

1.º MUTILLA: Libertadiaren burrukariak gera gu. Euskalerrria konde zikoitz eta apaiz kobarde guztien uztarritik libratuko degu.

ARLOTE: Libratu zazue ba. Baiñan beren tratua azkar egin nahi duten merkatarieri bakean utzi.

3.º MUTILLA: Gurekin ez dago pakerik, adiskide.

2.º MUTILLA: Alde edo kontra. Gure adiskideak ez bazerate, gure etsaiak izango zerate. Herri honetan ez dago pakerik.

1.º MUTILLA: Bai, ala da. Zuen laguntza bear degu. Ematen ez ba diguzue, ba dakizue zuen eztarria zerekin topatuko den.

(Ezpata erakusten du.)

3.º MUTILLA: Ezpata zorrotz batekin.

ARLOTE: Baiña guk, tratulari pobre hauek, zer egin dezakegu hain soldadu azkar eta korajetsu batzuen alde?

1.º MUTILLA: Zuek profezi saltzalleak zerate.

DOKTORE: Bai, horretarako ereki degu gure denda. Gure profezia ondo pagatzen badezue...

ARLOTE: Etorkizuna igarriko dizuegu.

1.º MUTILLA: Zuen bizitza maite al dezue?

DOKTORE: Jainkoa bezela, munduko gauza guztien gaiñetik.

2.º MUTILLA: Gaur gezurra esaten baldin badezue, bihar ez da zuentzat eskaporik egongo.

3.º MUTILLA: Kanposantuko illobi bat izango dezue bihar arratseko zuen oia.

2.º MUTILLA: Edo ta bestela, gurekin egon zeratela iñori aitortzen badiozute, badakizue zer izango den zuen biarko bazkari gozoa.

1.º MUTILLA: Gurutzearen azpiko lur mokadu legor bat!

ARLOTE: Bost'na dukat pagatzen badituzue, gure leialtasunarekin konta zenezateke.

1.º MUTILLA: Ez da pagamenturik izango.

2.º MUTILLA: Bizitza barkatzen dizuegu, eta gaiñera dirua kobratu nahi dezue?

3.º MUTILLA: Zer aukeratzen dezue? Gure adiskidetasuna edo gure etsaitasuna? Aguro! Azkar! Alperrik galtzeko denborarik ez daukagul Aukeratu!

ARLOTE: Ez dezue, alajainkoa, aukera haundirik uzten.

DOKTORE: Gauzak presentatu dituzuen bezela presentatu ezkerro ez dirudi guretzat zuen adiskidetasuna beste erremediorik dagoenik.

1.º MUTILLA: Baiña ahaztu gabe, gero. Erri gaztea armetan mendira atera da. Zuen promesa austen badezue, bihar probintziako mutill guztiak zuen kontra etorriko dira.

ARLOTE: Zer nahi dezue?

1.º MUTILLA: Beste batek esango dizu!

3.º MUTILLA: Txordon! Ator!

(Txordon agertzen da.)

TXORDON: Konforme al daude?

2.º MUTILLA: Ala dirudi.

TXORDON: Orduan zuek, Joane Doktore eta Petri Arlote profetak, entzun. Kondearen kontra rebelatu da herria. Eta gerra honetako lenengo pausoa orain eman behar degu. Kondeak nere andregaia preso daduka, eta neska hori erreskatatu behar degu. Ez dizuet nun dagoen galdetuko. Nun dagoen bagenek ere berdin izango litzake, kondearen armada gurea baiño indartsuagoa baita. Beste gauza bat behar degu zuengatik.

ARLOTE: Bai? Eta zein da?

TXORDON: Guk ere norbait artu nahi degu preso.

DOKTORE: Zertarako?

TXORDON: Nere andregaiaren truke kambiatzeko.

ARLOTE: Eta nor da arrapatu nahi dezuten hori!

TXORDON: Kondeari asko inporta zaion norbait. Beraren andrea bera, beraren emaztea!
Kondesa andrea behar degu!

DOKTORE: Arlote, esaiozu kondesa andrea biar goizean nun arrapatu lezateken, eta pakean joan ditezela.

ARLOTE: Bai, hobe izango da.

TXORDON: Azkar mintza zaite, komeni bazaizue. Komeni ez-bazaizue, kupidarik gabe ilko zaituztet biok.

ARLOTE: Bihar, Aitzpitarte'ko errotan. Goizeko zazpiretan. Ez dakigu nola edo zergatik an egongo dan. Seguru asko, maitale baten zai. Seguru asko, zure zai... Maite omen zaitu.

TXORDON: Zu erotu egin zera.

ARLOTE: Orrela dio etorkizunaren bozak! Maite zaitu. Konsolatu egin nahi zaitu. Eta zuk ere ordu betean maitatu egin behar dezu. Ordu betean gutxienez. Bestela ez dezu zure Gabon-Eder atzera zure besoartean edukiko. Hori da etorkizunaren bozak diona. Zure zoriona eta bentura ona traizio baten gañean finkatuko dira.

TXORDON: Ez dakit egia diozun. Ez dakit ez ote nauzun engañatu nahi. Erotu egin zerala uste det. Baiña kaso egingo dizut. Agur. *(Ba doa.)*

1.º MUTILLA: Gure presentzia iñori salatzen badiozute, bihar goizean kanposantuan esnatuko zerate. Agur. *(Ba doa.)*

2.º MUTILLA: Gure asmoak jendeari aitortzen ba dizkiozue, etziko eguzkiak etzaitue argituko. *(Ba doa.)*

3.º MUTILLA: Gezurra esan badezue, zuen bizitza emen bukatuko da.

(Ba doa. Arlotek eta Doktorek alkarri irribarra egiten diote; illun aldia.)

(Argi gorria.

Jaun Garzia, Mujikako kondea, eta bere serbitzariak sartzen dira.)

KONTEA: Nere etorkizuna igarri behar didazue.

DOKTORE: Egunen batean ill egingo zera. Eta badakizu antziñako esaera zaharrak zer dion: Gilen, biar ilen, etzi ehortziren eta etzi damu eternidade guziko ahantziren. Hortik ez dago eskaporik.

KONTEA: Bai, bai. Hori badakit. Eta tranze gogor hori noiz gertatuko den jakitea etzait inporta.

ARLOTE: Zer jakin nahi dezu, ba.

KONTEA: Ez dakit jakingo dezun. Baiña herri honetan egintza estraño xamar batzuek suertatu dira azken bolara honetan.

DOKTORE: Zerbait entzun degu.

KONTEA: Bai. Agirian dago, eta beleak sarraskiaren usaira bezela abiatu zerate biok honera. Erreka nahastuetako arrantzale traza artzen dizuet.

ARLOTE: Jauna, guk gure negozio prestua zabaldu besterik ez degu egin. Gure dendara sartu bazera, etzaitz insultatzera sartu. Bestela badakizu kaleko atea nun dagoen eta bertatik joan ziñezke.

KONTEA: Hea, hea. «Egiak motz eta labur miñ dezake edozeiñ zakur.» Ez zaitz orregatik asarretu.

ARLOTE: Utzi dezagun arrazoi hori, eta esan zerk zakarzkien.

KONTEA: Ni konterri honetako kondea naiz.

DOKTORE: Izena, mesedez?

KONTEA: Jaun Garcia, Mujikakoa.

ARLOTE: Aurrera.

KONTEA: Konterri honetan beti izan degu belaunaren eskubidea. Ba dakizue: neskatz bat ezkontzen zenean nerekin pasa behar zuen lenengo gaua.

DOKTORE: Etzera gizon tontoa, alajaña!

KONTEA: Etzazula uste, adiskide, etzazula uste. Neretzat hainbeste neska estreñatzea gauza nekagarria izaten zen.

ARLOTE: Eta zure atzaparretik lasai eskapatzen uzten al zenituen?

DOKTORE: Gure konde jaunak ez daki bizitza atsegiña zer den.

ARLOTE: Nik horrelako eskubide bat izan banu, ez nuen neskarik debalde eskapatzen utziko. Irugarren urterako ilko banitzan ere, aukera etortzen zitzaizkidan guztiak aprobeztatuko nituan.

KONTEA: Ez nituan hain debalde uzten.

ARLOTE: Ez?

KONTEA: Ez. Senargaiak, aurrenekoa izateko eskubideagatik, sari bat pagatu behar izaten zidan. Batzutan, herriko- seme pobreegiak ziranean, etzuten dirurik izaten, eta neska itxusi xamarra baldin bazen erretoliarik gabe eskubidea ematen nion eta kito. Polita baldin bazen, orduan izaten ziran kontuak.

ARLOTE: Eta zer jakin nahi dezu?

KONTEA: Ez al dakizue nola emen milagro bat gertatu den?

ARLOTE: Bai, zerbait entzun det, Gabon-Eder izeneko dantzarisia bat zerura igo zala aingeruak eramana.

KONTEA: Holako milagroak ere konpontzen dira.

DOKTORE: Bai?

KONTEA: Begira; milagrua gertatu zanean ni presente nengoen, eta nere begiekin ikusi nuen guztia; bai, lenengoan hala iruditu zitzaidan, milagroa zela. Txordon Pilotak eskuetan artu zuen Perrandok jo nahi etzuen txistua, eta txistua, Pilotak ezpañetara eramana gabe, bakarrik jotzen asi zen.

DOKTORE: Orain artean, denpora askoz atzera gertatuko gauzetaz besterik ez dezu itzezin, eta guk etorkizunaren berri ematen degu.

ARLOTE: Bai, mintzatu zaitte gerokoaz, ez aspaldi gertatu denaz.

KONTEA: Barka zazue, baiña nere arrazoiak esplikatatu behar ditut.

ARLOTE: Bai, ala da; horrek zerbait lagunduko gaitu.

KONTEA: Ikusi nuen, bai, nola odei artean neska ezkutatu zen. Hura gertatu zenean, deabruaren obra zala iruditu zitzaidan, baiña geroztik luzaro eta sakonki pentsatzen egondu naiz, eta gertaera horrerik esplikazio bakar bat arkitzen diot. Hemen gertatutako guztia engaño bat besterik etzen izandu. Ongi montatutako truku eder bat.

ARLOTE: Bai?

KONTEA: Bai. Bi gizon haiek ederki preparatu zuten guztia.

DOKTORE: Zeintzuk?

KONTEA: Txistulariak eta pelotariak. Eta milagroaren aitzakiarekin, neska eder hura eskuetatik lapurtu didate. Orain gauza bat galdetu nahi dizuet. Nun arkitzen da neska hori? Gabon-Eder hori?

ARLOTE: Ez dakigu...

KONTEA: Baiña ez al dezue esan dena axertatzen dezuela?

ARLOTE: Etorkizuna bakarrik.

KONTEA: Orduan nere galdera bestela egingo dizuet: Bihar goizean, egun sentian, ollarrak lenengo kukurrukua kantatzen duanean, nere Gabon-Eder desiatua nun arkituko da? Galdera horrerik erantzunik emango al diozue?

DOKTORE: Bai.

ARLOTE: Baiña kondizio ttiki bat jarrita.

KONTEA: Zer kondizio?

ARLOTE: Dirua pagatu behar dezula!

KONTEA: Holako traturik ez da iñun ikusi. Lana egin baiño lehen dirua pagatu! Eta engañatu nahi baldin banauzue?

DOKTORE: Arrisku hori jokatu bear dezu. Arriskatzen ez denak ez du sekulan ezer irabazten.

ARLOTE: Galdetu dezuna jakiteko interesik baldin badezu, pagatu. Bestela joan zaitetz. Jende geiago zai daukagu ta.

KONTEA: Ez zaitetz arrotu. Pagatuko dizuet (*Patrikatik boltsa bat ateratzen du.*) Hemen dagozte bost dukatak.

ARLOTE: Barkatu, baña irakurtzen ez al dakizu?

(Kartela seinalatzen dio.)

KONTEA: Bai; hor dio honera datorren bakoitzak bost dukat ordaindu behar dituala.

ARLOTE: Ez; hor dio bost'na dukat ordaindu behar dituala. Joane Doktore'ri bost, eta Petri Arlote'ri beste bost.

KONTEA: Baiña hau dirua lapurtzeko modu egoki bat besterik ez da!

ARLOTE: Nahi badezu pagatu eta bestela utzi!

KONTEA: (*Beste bost dukat ateratzen ditu.*) Hea, hea. Nere galderari erantzun iozue. Bihar goizean goiz Gabon-Eder nun egongo da?

ARLOTE: Gogoratzen al zera Aitzpitarte'ko mendiaren egalean errota zahar abandonatu bat nola dagoen?

KONTEA: Bai.

ARLOTE: Bihar goizeko zortziretan bertan egon.

KONTEA: Gabon-Eder an arki dezakedala...

ARLOTE: Ala izan dedilla.

(Ba doa kondea eta serbitzariak.)

(Argi urdiña.

Serora batzuek sartzen dira.)

SERORA BAT: Zuek profetak al zerate?

ARLOTE: Bai.

SERORA BAT: Elias bezela?

DOKTORE: Hainbeste ez, baña, tira, or nunbait.

SERORA BAT: Etorkizuna axertatzen al dezue?

ARLOTE: Saiatzen gera beintzat.

SERORA BAT: Eta ez al zerate iñoiz deskuidatzen?

DOKTORE: Orain artean ez degu utsik egin.

SERORA BAT: Jaun printzipal bat errezibituko al zenuteke?

ARLOTE: Jaun aundiak eta jaun ttikiak, denak errezibitzen ditugu.

SERORA BAT: Baiña oso jaun printzipal bat errezibituko al zenuteke batere eragozpenik jarri gabe.

DOKTORE: Kondea baño inportanteagoa?

SERORA BAT: Ez da ainbeste, baiña...

DOKTORE: Jaun kondea oraintxe bertan despatxatu degu.

ARLOTE: Diru preskua pagatu du, eta etorkizuna igarri diogu.

SERORA BAT: Jaun kontea zuengana?

ARLOTE: Bai. Eta zu erretoreak bidali zaitu.

SERORA BAT: Nola dakizu?

DOKTORE: Profetak gera. Baiña profezi horregatik ez dizugu ezer kobratuko. Bai; datorrela erretorea.

(Erretora sartzen da. Serorak ba doazi.)

ERRETOREA: Ez dakit egiazko profetak izango zeraten.

ARLOTE: Ikustera etorri zera beintzat.

ERRETOREA: Bai. Baiña profeta faltso asko dabill mundu honetan zear, eta...

DOKTORE: Gezurrezkoak ala egitazkoak geran jakitea amar dukat kostako zaizu.

ERRETOREA: Nola amar dukat?

ARLOTE: Bai, nere lagunari bost eta neri beste bost.

ERRETOREA: Hori ez da kartel horrek diona.

DOKTORE: Bai, jauna. Orrela dio. Bost'na dukat.

ERRETOREA: Bueno, ondo dago. Tori bost'na dukat bakoitzarentzat. Nere poltsa pixkanbat arinduko da, baiña nolako profetak zeraten jakin nahi det.

(Dirua atera eta pagatzen du.)

ARLOTE: Zer jakin nahi dezu?

ERRETOREA: Badakizue nola emen milagru bat gertatu zen. Nik deabrukeria dela diot.

Logroñoeko Inkisidoreari orregatik deitu diot. Orain bidean dago.

ARLOTE: Eta biar goizean emen izango dira.

ERRETOREA: Nola dakizu?

DOKTORE: Itxoin bihar arte.

ERRETOREA: Bai? Eta zer gertatuko da? Zer erabakiko dute azkenean? Milagroa zeñen obra izan da? Zeruarena ala deabruarena?

ARLOTE: Erretore... Erretore...

ERRETOREA: Nola! Zer?

ARLOTE: Egun txit illunak ikusten ditut zure etorkizunean.

ERRETOREA: Egun illunak?

ARLOTE: Bai... galerak... arraun lodi bati katez lotuta agure zahar bat preso ikusten dut.

Eta agure horrek zure arpegia daduka. Oso zaharturik, azala eta ezurrak besterik etzaizkio gelditzen. Zu zera, dudarik gabe, zu zera.

ERRETOREA: Eta nola iritxi naiz hain tranze gogor batera?

ARLOTE: Inkisidoreak gure artean daude. Gabon-Eder'i gertatua Jainkoaren obra dela erabaki dute. Eta zu, deabrukeria izan dela esateagatik, Fedea'ren eta Legea'ren etsaitzat juzgatu eta kondenatu zaituzte...

ERRETOREA: Eta eskaporik ez al dago?

ARLOTE: Eskaporik ez dago. Gauza argirik ez det ikusten, baiña seguru nago orain iges egingo bazenuke ere, nik esantakoa berdin gertatuko litzakela.

ERRETOREA: Hori gezurra da! Gezurra da!

ARLOTE: Bihar arte itxoin, eta orduan ikusiko degu.

ERRETOREA: Inkisidorea'ri denunziatuko zaituztet, zuek etzeratela profetak, zuek sorgiñ jentillak zeratela.

ARLOTE: Horrekin ez dezu ezer irabaziko. Baiña zaude pixka batean. Oraindik geiago ikusten dut: zu zoazen ontzia beste batekin burrukan asi da. Burrukaldi aundi bat dago bi itxas-ontzien artean. Eta atzenean zuena ur azpira dijoa, eta bertan daude arraunlari kondenatuak itxas olatuetan itotzen dira.

ERRETOREA: Ez. Zaude ixillik!

ARLOTE: Gaiñera...

ERRETOREA: Ni ba noa. Ba noa herri honetatik...

(Korrika mutis egiten du. Illun aldia.)

(Argi gorria.

Marika Luze eta Perrando Txistu.)

DOKTORE: Zuek ere guregana al zatozte?

MARIKA: Ezagutzen al gaituzue?

DOKTORE: Zuen etorkizuna argi ikusten da zuen arpegietan.

MARIKA: Eta zer ikusten da?

DOKTORE: Su haundi bat. Biok sutan erreak izango zerate.

MARIKA: Baiña zergatik?

DOKTORE: Zuek erejeak zerate. Deabruaren egintza Jainkoak egindakoa bezela artzen dezue, eta inkisidoreak sorgintzat juzgatu, kondenatu eta erre egingo zaituzte!

PERRANDO: Goazen, goazen emendik beste nunbaitera gure Ebanjelioa predikatzer!

ARLOTE: Gauza bat falta da.

MARIKA: Zein?

ARLOTE: Guk etorkizuna axertatzen dizuegu, eta zuek pagatu behar dezue!

PERRANDO: Ill eta pagatu? Ez gaude horren ero!

DOKTORE: Soldaduei deituko diegu.

PERRANDO: Zertarako? Azkarrago il gaitzaten?

(Ba doaz. Illun aldia.)

(Argi naranja.

Jende egoki batzuek sartzen dira. Inkisidorea'ren zaldun eta kalonjeak dira. Aietako bat bi profeteri urbiltzen zaie.)

KALONJEA: Barkatu, baiña zuen fama onaren sona gure belarrietan iritxi da.

ARLOTE: Eta zer nahi dezue?

KALONJEA: Zerbait igarri behar dezue.

DOKTORE: Aurretik ordaindu. Oraintxe bertan eskapatu zaizkigu bi pagatu gabe, eta orain zuen saria eta aiena ordaindu bearko dezue.

KALONJEA: Zenbat da?

ARLOTE: Orren jende inportanteari amabost dukat besterik ez dizkiogu kobratuko.

DOKTORE: Gaurko eguna ez da txarra izango. Ja! Ja! Jende listoa ederki bizi liteke tontoen kontura.

ARLOTE: Baiña kontuak egin baiño lehen, igarri dezagun jende aberats hau zertara datorren guregana.

DOKTORE: Hori gauza erreza da guretzat.

ARLOTE: Bai. Hauek erenegun atera ziran Logroño'tik, eta Bitoria'n igaro zuten gaua.

DOKTORE: Hauek inkisidore jaunaren konpañia dira.

ARLOTE: Inkisidore jaun hoiak nola dute izena?

DOKTORE: Batek Manso Zuñiga.

ARLOTE: Bai. Eta besteak Bezerro Ganboa.

DOKTORE: Eta atzoko eguna itzali zenean, Manso Zuñiga eta Bezerro Ganboa etziran iñundik ere agertu.

ARLOTE: Billatu bai egin dituzte, baiña beren arrastorik ez dute iñun ere arkitu.

DOKTORE: Hemen arkituko dituztelako esperantzetan honera abiatu dira, baiñan emen ez diete beren nagusiaren arrazoirik eman.

ARLOTE: Eta herrian bi profeta daudela jakiñik, guregana abiatu zerate, guk gure jakituri ezkutuaren bitartez aien berririk ematen ote dizuegun edo. Ez al da ala?

KALONJEA: Bai, hala da. Eta gaua erori baiño lehen zuen medioz arkitzen baditugu, oparo ordainduak izango zerate.

ARLOTE: Belarriak erne jarri, jaunak; begiak zabaldu, gizonak! Oriente'ko majiaren aurrean zaudete. Begira zazue gizon hori. *(Joane Doktore señaletzen du.)* Gizon hori oraiñ artean herri honetan Joane Doktore bezela ezagutu dezue, baiña ongi begira zaiozue. Zein da, beraz, gizon hori...?

KALONJEA: Manso Zuñiga!

ARLOTE: Begira zazue gizon hau. *(Bere burua señaletzen du.)* Gizon hau oraiñ artean herri honetan Petri Arlote bezela ezagutu nauzue, baiña ongi begiratu zaidazue. Nere egitazko izena...

KALONJEA: Bezerro Ganboa!!

ARLOTE: Bezerro Ganboa!

GUZTIAK: Inkisidore jaunak!!

(Belaunikatzen dira.)

M. ZUÑIGA: Orain erretiratu zaitetze.

B. GANBOA: Bai. Deliberatu egin behar degu.

(Illun aldia.)

(Argi normala.)

M. ZUÑIGA: Hiru egun dira erri honetan gaudela.

G. GANBOA: Juizioa erabakia dago.

M. ZUÑIGA: Kondenatuak agertu bitez.

KALONJEA: Jaun Garcia, Mujikako kondea.

(Agertzen da.)

M. ZUÑIGA: Zure eskubidea kentzen zaizu.

B. GANBOA: Neskaxa ezkonberrien gañean ez dezu emendik aurrera aukerarik izango.

M. ZUÑIGA: Orren orde, ezkontzen diranean diru kantidade bat emango dizute.

B. GANBOA: Eta emateko dirurik ez badute, ez dizute emango, eta kitto.

M. ZUÑIGA: Erretira zaitez.

(Ba doa kondea.)

KALONJEA: Agertu bedi Mujika'ko kontesa andrea.

(Kontesa agertzen da.)

M. ZUÑIGA: Zure senarra ez den gizon baten besoetan egon zeralako, hemendik aurrera eta eriotzeko eguna arte, zure senarraren arpegia bakarrik ikustera kondenatzen zaitugu.

B. GANBOA: Erretiratu zaitez.

(Ba doa kontesa.)

KALONJEA: Txordon Pilota ager bedi.

(Ez da agertzen.)

B. GANBOA: Juizio honetara ez etortzeko pekatuagatik, soldaduak arkitzen duten lekuan bertan il dezatela.

KALONJEA: Agertu bedi Gabon-Eder.

(Ez da agertzen.)

B. GANBOA: Juizio honetara ez etortzeko eta deabruaren esanetara makurtzeko bi pekatu hoiengatik, eternidade guztirako inpernura kondenatzen degu Gabon-Eder.

KALONJEA: Perrando Txistu ager bedi.

(Perrando Txistu agertzen da.)

B. GANBOA: Tontoa eta kobardea izateko pekatuagatik, atso zahar batekin ezkontzera kondenatzen zaitugu. Hari kate haundi batez lotuta biziko zera.

M. ZUÑIGA: Erretira bedi Perrando Txistu.

(Ba doa Perrando Txistu.)

KALONJEA: Ager bedi Marika Luze.

(Marika Luze agertzen da.)

M. ZUÑIGA: Okerra eta zikoitza izan zeralako, agure zahar batekin ezkontzera kondenatzen zaitugu. Hari kate batez lepotik lotuta biziko zera zure bizi guzian.

B. GANBOA: Erretiratu bedi Marika Luze.

(Ba doa.)

KALONJEA: Ager bedi Mosen Bertran.

(Mosen Bertran agertzen da.)

B. GANBOA: Jaunaren apaiz dollor eta kristau epel ta gezurrezko bat izan zeralako, galeretara kondenatzen zaitugu.

M. ZUÑIGA: Erretira zaitetz.

(Ba doa.)

B. GANBOA: Eta orain egiazko erruduna kondenatuko dugu.

M. ZUÑIGA: Deabruak aukeratu zuen tresna.

B. GANBOA: Satan Beltzaren instrumentua.

M. ZUÑIGA: Txistua!

B. GANBOA: Deabruak jo zuen txistua.

M. ZUÑIGA: Neska bat sorgindu zuen txistua.

B. GANBOA: Ekarri bezate.

(Bat txistuarekin agertzen da.)

M. ZUÑIGA: Sua ere ekarri bezate.

(Ontzi bat dakarte. Bertatik sua ateratzen da.)

B. GANBOA: Txistua sutara bota bezate.

(Botatzen dute, eta erortzen den momentuan bertan, su-gar haundi bat atera bedi.)

TELOIA

Justizia txistulari, Gabriel Aresti

Egan, 1/6-1967
